

## Donostialdeko sugandila iberiarraren (*Podarcis hispanica*) karakterizazio filogenetikoa

Iñaki Sanz-Azkue<sup>1,2</sup>, Koldo García-Etxebarria<sup>1</sup>, Alberto Gosá<sup>2</sup>, Xabier Rubio<sup>2</sup>, Begoña M. Jugo<sup>1</sup>.

<sup>1</sup> Genetika, Antropologia Fisikoa eta Animali Fisiologiako Saila. Zientzia eta Teknologia Fakultatea. EHU-UPV.

<sup>2</sup> Ornodunen Saila, Aranzadi Zientzia Elkartea. 20014 Donostia -San Sebastián

### LABURPENA

*Podarcis* genero barruko sugandila espezieen arteko ezberdintasun morfologiko txikiak eta heterogeneitate intraespezifikoko altuak, espezieen definizioan zailtasunak sortzen ditu. Hau dela eta, azken urteetan *Podarcis hispanica*ren inguruan iberiar penintsulan eginiko gene-ikerketak filogenetikoek *Podarcis hispanica* espezie-komplexu bat dela ondorioztatu dute (Harris et al, 2002, Pinho et al., 2006).

Bestalde, Donostiako Santa Klara uharteko eta garai batean uhartea izandako Urgulleko populazioekin egindako ikerketa morfologiko eta folidotikoetan oinarrituta (Klemmer, 1964, Bea et al., 1986), bi populazio hauek *Podarcis hispanica*ren azpiespezietzat hartzea proposatu izan da, bere garaian *Podarcis hispanica sebastiani* bezala izendatu zirelarik.

Hortaz, proiektu bat planteatu da, bi helbururekin:

- Donostia inguruetakoko sugandila populazioak espezie-komplexua osatzen duten zein multzotan sartuko lirakekeen ikertzea da.

- Sta. Klara eta Urgulleko *Podarcis hispanica* populazioak azpi-espezie bat osatzen duten ikertzea.

Honetarako, 5 populazio ezberdinetatik hartu ziren laginak, Sta. Klara eta Urgulletik eta inguruetan dauden hiru mendietatik (Mendizorrotz, Uliá eta Jaizkibel). Donostia inguruetakoko populazio guzti hauek espezie-komplexuko zein multzotan sartuko lirakekeen ikusteko, populazio bakoitzetik 2 lagin hartu ditugu eta 12 S eta cyt *b* eskualdeak aztertu dira, PCR bidez amplifikatuz eta sekuentziazioa burutuz ondoren. Analisi filogenetikorako 3 zuhaitz ezberdin eraiki dira, distantzietan oinarrituriko Neighbour Joining-a, Partsimonia Maximokoa eta metodo Bayesiarra erabiliz.

Metodo desberdinetan oinarrituriko hiru zuhaitzek topologia antzekoa erakutsi dute sendotasun maila altuekin. Hauetan guztietan, azterturiko Donostia inguruetakoko sugandila populazioak, lehenagotik azterturik zeuden (Pinho et al., 2006) eta "3. morfotipoa" edo "liolepis" izeneko espezie-komplexuko taldea osatzen duten *Podarcis hispanica*-ekin batera multzokatzen dira kluster berean. Hala eta guztiz ere, morfotipo honen barruan Donostiako populazio hauek azpimultzo berean, talde ezberdin bat osatuko lukete. Donostialdeko populazioen arteko azterketan dihardugu orain, emaitza sendoagoak lortzeko asmoarekin.